

AURREKONTUAREN MEMORIA

EKITALDIA: 2020

1- DATU OROKORRAK

ERREGISTRO ZENBAKIA: F-264

IZENA: GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOA

KALEA: GIPUZKOA PL. Z/G (FORU JAUREGIA)

POSTA KODEA: 20.004

UDALERRIA: DONOSTIA

LURRALDE HISTORIKOA: GIPUZKOA

IFK: G-75017863

AITORPEN DATA: 10/05/2010

SAILA:

TEL: 943 577 655

2- HARREMANETARAKO PERTSONA

IZENA: Luis Mari

ABIZENAK: Zaldua Etxabe (Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioko Gerentea)

3- INTERES OROKORREKO HELBURU NAGUSIA

Fundazioaren helburua Gipuzkoan ditugun Natur Parkeetako interpretazio-zentroen edo Parketxeen kudeaketa integratua egitea da. Helburu zabal horren barruan, jarduera zehatz garrantzitsuenak eta premia handienekoak ondorengo hauek izango dira:

- Gipuzkoako Parketxeen Sare bat sortzea, sustatzea eta ezagutarazi dadila bultzatzea, irizpide homogeen batzuekin kudeatu daitezten.
- Gipuzkoako Parketxe Sarearen kudeaketa integrala eta dinamizazioa.
- Ingurumen-heziketa sustatzea, natur ingurunea ezagutzea eta ingurumenarekiko errespetuaren berezko balioak ezagutzera ematea, bai herritarren artean oro har, eta bai gipuzkoarren artean ere bereziki.
- Naturarekin loturiko aisialdiko jarduerak eta jolas-jarduerak natur ingurunearekin harmonian sustatzea.

- Gipuzkoako Natur Parkeen egoera eta premien inguruko ezagutza sakontzeko xedea duten azterlantak edo ikerketa-proiektuak burutzea, horiei esker ikasgai baliagarriak jaso ditzakegulako.
- Sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko lankidetzaren bultzatzea, aurreko paragrafoetan azpimarratutako balioak sustatzeko orduan. Bereziki, ekimen zehatz batzuetan parte hartu ahal izango du, horiek arrakasta izaten lagundu dezaketen eragile publiko edo pribatu guztiek esku har dezatela bultzatuz.
- Oro har, zuzenean nahiz zeharka, Gipuzkoako Natur Parkeen Sarea sustatzen eta hobetzen lagundu dezaketen era guztietako ekimenak burutu ahal izango ditu.

4. 2020KO EKITALDIRAKO PATRONATUKO KIDEA

Gipuzkoako Foru Aldundia, eta horren ordezkari gisa arituko dira Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuko Foru Diputatu Imanol Lasa Zeberio jauna (Presidente), Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendari Nagusi Aranzazu Ariztimuño Larraza anderea (presidenteordea), Xabier Arruti Olazabal jauna (Diruzaina), Segundo Diez Molinero jauna (Idazkaria), Jon Ander Azpiroz Otegi jauna (Bokala) eta Maria José Telleria Etxeberria anderea (Bokala).

Oñatiko Udala, eta horren ordezkari gisa arituko da Izaro Elorza Arregi anderea (Bokala).

Aiako Udala, eta horren ordezkari gisa arituko da Nekane Arrizabalaga Manterola anderea (Bokala).

Oiartzungo Udala, eta horren ordezkari arituko da Eneritz Arbelaitz Sarasti anderea (Bokala).

Ataungo Udala, eta horren ordezkari gisa arituko da Irati Arratibel Zeberio anderea (Bokala).

Zegamako Udala, eta horren ordezkari gisa arituko da Joseba Izagirre Arozena jauna (Bokala).

5- ERAKUNDE PUBLIKOEK PATRONATUAN DITUZTEN PARTAIDETZA GEHIENGODUNAK ETA PARTAIDETZEN EHUNEKOA

<u>ERAKUNDEA</u>	<u>PARTAIDETZA</u>
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	% 75,00
OÑATIKO UDALA	% 02,50
AIAKO UDALA	% 02,50
OIARTZUNGO UDALA	% 02,50
ATAUNGO UDALA	% 02,50
ZEGAMAKO UDALA	% 02,50
CAJAS DE AHORROS Y MONTES DE PIEDAD	% 12,50

6- ORDAINSARI OROKORRAK PATRONATUKO KIDE IZATEAGATIK

<u>KONTZEPTUA</u>	<u>Euro</u>
Soldatak eta Lansariak	0,00
Dietak	0,00
Beste Kontzeptu batzuk	0,00
Guztira	0,00

7- ESKUORDETZEAK ETA AHALORDEAK

GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOKO gerente LUIS MARIA ZALDUA ETXABE JAUNA izendatzea erabaki da.

JULIAN UNANUE BEREZIARTUA JAUNARI (Lehendakariordea) eta LUIS MARIA ZALDUA ETXABE JAUNARI (Gerentea) AHALORDE OROKORRA ematea erabaki da Fundazioaren izenean eta ordezkari gisa ondorengo eskumenak gauzatu ahal izan ditzaten:

Administrazio Ekintzak.

- Era guztietako ondasun higigarriak eta higiezinak administratu, zaindu eta mantentzea.
- Era eta mota guztietako eskubideak eta betebeharrak betetzea eta betearaztea.
- Kontuak eta likidazioak eman, eskatu eta onestea.
- Gutunak sinatu, bidali eta horien jarraipena egitea.

- Igorpen eta posta-bidalketak, telegrafikoak, telematikoak eta edozein eratakoak egin eta jasotzea, eta erreklamazioak eta oharkizunak egitea galera, murrizpen eta matxurengatik, eta, halaber, bidezkoak diren kalte-ordainak jasotzea. Aduanan, Tren Geltokian, Posta, Telefono eta Telegrafo Etxean fardelak, posta-fardelak, balio aitortua duten pleguak, ziurtagiriak, gutunak, telegramak, telefonemak, faxak, posta elektronikokoak eta antzekoak jasotzea. Fakturak, emate-agiriak, suteen aurkako aseguru-polizak edo beste era batekoak, manifestuak, ezagutza-agiriak eta antzeko beste agiri batzuk sinatzea. Telefono Konpainiarekin, Posta Zerbitzuarekin eta aipatutako erakunde horien antzeko zerbitzuak eskaintzen dituen beste edozein erakunde publiko nahiz pribaturekin kontratuak egitea, hala nola datuak, informazioak eta albisteak prozedura elektronikoko, irratiko, telebista eta satelite bidez banatzeko xedea dutenak.
- Edozein eratako ohiko eta ez-ohiko kontratuak ituntzea, aldatzea, berritzea, ebaztea eta likidatzea, baita akurapen, leasing, partzuergo, aseguru, frankizia, hornidura, zerbitzu eta obren akurapen eta garraio arlokoak ere.
- Herri Administrazioan eta antzeko Bulegoetan obra, zerbitzu eta horniduren lehiaketetan eta enkanteetan parte hartzea eta dagozkion kontratuak izenpetzea.
- Maizterrak, akuratzailleak, partzuerrak, kolonoak, atezainak, prekaristak eta era guztietako okupatzaileak eta jabetunak kaleratzea.
- Lan-kontratuak, ondasun arruntak edo bereziak, kolektiboak edo banakakoak, hitzartzea.
- Lan-kontratuak ebaztea, irazpenak erabaki eta adostea, kalte-ordainarekin edo gabe, eta sozietate ahalorde-emailearen eskubide eta betebeharrak patronalak betetzea eta betearaztea.
- Libreki erabakitzen dituen baldintzetan, teknologia eskuratzeko eta aholkularitza tekniko eskaintzeko era guztietako kontratuak hitzartzea eta gauzatzea, eta oro har, patente, marka, modelo eta industria-jabetzarekin loturiko gainerako eskubideei buruzkoak, Sozietatea ordezkatzuz Industria Jabetzaren Erregistroan eta horrelako eskubideekin loturiko gainerako Erakundeetan, nazionalak izan nahiz nazioarte mailakoak izan.
- Libreki erabakitzen dituen prezio, itun eta baldintzen arabera, lehengaiak, lehorreko nahiz itsasoko garraioak, aseguru-kontratuak eta, bereziki, obra edo enpresa arloko hornidura- edo errentamendu-kontratuak egin, aldatu eta amaitutzat ematea, fundazioak ekoizten, merkaturatzen edo bitartekaritza-lanak egiten dituen ondasunekin loturik edo bere hornitzaileengandik jasotzen dituen produktuekin loturik, hori guztia zabaltasun handienarekin eta kontratua egiten duen pertsona edozein izanik ere.

- Arkitektura, ingeniari-tza, diseinu eta delineazio arloko zerbitzuak eskaintzeko eta era guztietako proiektu teknikoak gauzatzeko kontratuak egin, baimendu, agindu eta, hala egokitzuz gero, baliogabetzea fundazioarentzat instalazio, eraikin eta ekipo berriak eraikitzearekin loturik.

Kobrantzak eta Ordainketak

- Zor-ak, obligazioak, fondoak, gordailuak, finantzak, kapitalarengatik berme eta kredituak, interesak, dibidenduak, amortizazioak, tributuak, kontribuzioak, tasak eta zergak onartzea, aitortzea, ordaintzea, kobratzea, erreskatatzea eta horien itzulketa erdiestea, ordain-gutunak, ordainagiriak, saldoak, adostasunak, frogagiriak, kitapen-agiriak eta antzekoak izenpetuz, edozein pertsona, erakunde edo organismo publiko nahiz pribaturen, Bankuen, Aurrezki Kutxen, Kreditu Mutuen, Kooperatiben eta are Estatu- en, Autonomia Erkidegoen, Probintzien, Udalen, Kokaguneen, Nazioarteko Erakunde- en alde edo horiekin loturik, eta, bereziki, Ogasun Aitorpenekin, Aldundia eta Zerga-bilketarako Bulegoekin, Zerga Bulegoekin eta antzekoekin, eta eskumen horien barruan sartuko lirateke, bereziki, arestian aipatutako orokor horiez gain, kobrantsak, itzulketak, ordainketak, kontsignazioak, berme-gordailuak, likidazio-onarpenak, protesta-aurkezpenak, kontra egiteak, librantzak, desgrabazio, mozkin eta zerga-salbuespenak erdietsi eta izapidetzekoak, geroratzeko, zatikatzeko eta zerga-barkamenak egiteko eskaerak, eta finantzak eta bahiturak erreskatatzekoak.
- Fundazioak merkataritza, enpresa eta ustiapen alorrean duen helburuari dagozkion industria, manufaktura- zio eta merkataritza arloko hornidurengatik fundazioari zor zaizkion kreditu eta kopuru guztiak erreklamatzea, bermatzea, jasotzea, konpentsatzea, transakzioak egitea eta kobratzea, baita beste kausa eta arrazoi batzue- ngatik ere, edozein eratakoak izanik ere, hala nola finantza-erlazioengatik, kontratu-aukera eta promesengatik, zigorengatik, berandutza-interesengatik, kalte-ordainengatik, amaitu diren irabazien eta abagune-kostuen medeapenengatik, kooperazio-itzulkinengatik eta estornuengatik, eguneratzeengatik, eta ausazko joko eta antzekoengatik.

Xedapen Ekintzak

- Era guztietako ondasun higigarriak eta eskubide pertsonalak, makineria, ekipoak, teknologia, instalazioak, akzioak eta obligazioak, kupoiak, balioak edo edozein efektu publiko eta pribatu, egoki jotzen dituen kontratu-baldintzetan eta kontratu-prezio aitortu edo geroratuan, aktiboki nahiz pasiboki, bilateralki edo unilateralki erostea, saltzea, inorengatzea, trukatzea, edukitzea, eskuratzea eta kontratatzea.

- Salerosketak, ekarpenak, trukeak, lagapenak bai ordainketan eta bai ordainketarako ere, unibertsalak nahiz bereziak, amortizazioak, erreskateak, subrogazioak, aukerak eta tanteoak, ordain-agiriak, finantzak, transakzioak, konpromisoak, arbitrajeak, erremisioak, kenketak, itxoinaldiak eta konpentsazioak gauzatzea, onartzea, ematea eta burutzea.
- Merkataritza-sozietateak, kooperatibak, fundazioak eta edozein eratako erakundeak eratzea, baita gizarte-ekonomiakoak ere, baldin eta beren bazkideen erantzukizuna mugatuta badute, eta horri begira, Notarioaren aurrean ager daitezke, beren kabuz edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin batera, bidezko diren diru-ordainketak gauzatzea eta izendatzen zaizkien gobernu-organoetako karguak betetzea.

Tituluak, Balioak eta Bankuetako Jarduna

- Kanbio-letrak, taloiak, txekeak, ordainagiriak, merkataritza-efektuak eta antzeko ibilbide-efektuak egitea, onartzea, bermatzea, endosatzea, kobratzea, ordaintzea, protesta egitea, exekutatzea eta ezabatzea. (1)
- Sinaduraren jabe izatea eta era guztietako banku-eragiketetan jardutea. Aurrezki-libretak, kontu korronteak eta kreditu-kontuak, banku-gordailuak, inbertsio-fondoak eta inbertsio kolektiboko erakundeak irekitzea, horien jarraipena egitea, ixtea, baliogabetzea, kontratatzea, ebaztea eta likidatzea, eta horiek erabili eta baliatzea, txeekeen, taloien, transferentzien, aginduen, idazpen elektronikoen, berme pertsonalen eta bahi mugigarrien bidez.
- Merkataritza-kredituak edota dokumentu eta finantza arlokoak, edozein eratakoak izan da ere, aktiboki nahiz pasiboki ituntzea.
- Bermatzea eta bermeak eta berme-konpromisoak eskatu eta erdiestea, ahalmen hori enpresaren ohiko jardueren merkataritza-trafikoak berezkoak dituen eragiketetara mugatuz.
- Zorrak, obligazioak eta berme-konpromisoak aitortzea, ahalmen hori enpresaren ohiko jardueren merkataritza-trafikoak berezkoak dituen eragiketetara mugatuz.
- Eskudiruaren, balioen edo bestelako ondasunen behin-behineko edo behin betiko gordailuak eratzea, transferitzea, aldatzea, baliogabetzea eta ateratzea.
- Efectuak eta balioak erostea, saltzea, trukitzea, pignoratzea eta negoziatzea eta horien interesak, dibidenduak eta amortizazioak kobratzea.
- Segurtasun-kutxak akuritzea.
- Kontuetako saldoak eta kitapen-agiriak onestea eta transakzioak egitea. (9)

- Aurreko (1) eta (9) apartatuetan aipatzen diren ahalmenak edozein pertsona fisikorekin edo juridikorekin loturik gauzatu ahal izango dira, erregimen juridiko pribatu baten nahiz publiko baten mende egon, horretarako lege bereziak gaitu baldin badu, egoki denean eta, bereziki, Banco de España eta bere sukurtsalak, gainerako Banka Ofiziala, kreditu-erakundeak, aurrezki-kutxak, kreditu eta kauzioko mutuak eta antzekoak direnean.

Jarduera Administratiboa eta Prozesala

- Europar Batasunaren aurrean eta bere Administrazio, organismo, bulego, Ordezkaritza, Batzorde, Epaitegi eta Europar Batasunaren mendeko gainerako erakundeen aurrean fundazioa ordezkatzeko eta haren izenean agertzea, baita nazioarteko, atzerriko eta/edo nazioaz gaindiko izaera duen beste edozein organismo, administrazio eta erakunderen aurrean ere. (1)
- Epaitegiak, Auzitegiak, Magistraturak, Fiskaltzak, Zuzenbide Pribatuko Arbitrajeak, Ordezkaritzak, Epaimahaiak, Batzordeak, Agentziak, Elkartek, Ganberak, Notarioak, Erregistroak, Ikuskaritzak eta beste edozein Jurisdikzio, Administrazio eta Bulego Publikoren aurrean, baita Estatuko Administrazio Orokorra, Agintaritzak, Organismoak, Erakunde Autonomoak, Aldundiak, Probintziak, Udalerriak, Partzuergoak eta Mankomunitateen aurrean agertzea eta fundazioa ordezkatzeko, era eta izaera guztietako gaitan, zibilak izan nahiz penalak, sozialak, administratiboak, ekonomiko-administratiboak edota administrazioarekiko auziak izan, maila, instantzia eta kompetentzia guztietan. (2)
- Sustatzea, eskatzea, agintzea, jarraitzea, galdatzea, erantzutea, birmoldatzea, salbuestea, alegatzea, adostasunezko edo desadostasunezko agiriak izenpetzea, uko egitea, amore ematea, esekipena eskatzea, eragile, eskatzaile, laguntzaile, errekeritzaile, errekeritu, demandatu, aurka-eragile edo beste edozein titulupean eskatzea honen aurreko (1) eta (2) apartatuetan adibide modura aipatutako edozein instantzia, jurisdikzional eta bulegoren aurrean, kasu guztietan, izan salbuespen, adierazpen, erreklamazio, kexa, protesta, errekerimendu, aitorpen edota errekurso, baita egoki iruditzen zaion edozein kasazio-errekurtsotan eta babes konstituzionalekotan ere. (3)
- Aurreko (1), (2) eta (3) apartatuetan azaldutako guztiari begira, berrespen pertsonalak eta agerpenak gauzatu ahal izango ditu eta ahalordeak eman, bai orokorrak eta bai bereziak ere, Prokuradore, Abokatu eta Propioen alde.

Izaera orokorrez, transkribatu berri diren ahalmen horiek aipatutako ahaldunek egin ahal izango dituzte solidarioki edo bereizi gabe, ondorengo salbuespen edo **muga kuantitatiboekin**:

- a) Xedapen-ekintza, eskudirutan egindako ordainketa eta, oro har, banku-jardun guztietarako, eragiketaren zenbatekoa 21.000 €koa edo hortik gorakoa denean, arestian nortasuna zehaztu zaien bi ahaldunek elkarrekin edo mankomunaturik jokatu beharko dute.
- b) Xedapen-ekintza, eskudirutan egindako ordainketa eta, oro har, banku-jardun guztietarako, eragiketaren zenbatekoa 60.000 €koa edo hortik gorakoa denean, bi ahaldunek elkarrekin edo mankomunaturik jokatu beharko dute eta, horrez gain, beharrezkoa izango da Patronatuko Lehendakari JON PELI URIGUEN ANSOLA jaunaren sinadura agertzea.

8- 2020AN EGIN BEHARREKO JARDUEREN LABURPENA

2020rako aurreikusitako jarduerak honakoak dira:

- Ingurumen-heziketa, natur ingurunearen ezagutza eta ingurumenarekiko errespetuaren berezko balioen zabalkundea sustatzen jarraitzea, bai herritarren artean, oro har, eta bai gipuzkoarren artean ere, bereziki. Eginkizun horrek eragile eta kolektibo espezializatu batzuen ardura izaten jarraituko du, guztiak proposamen eta zerbitzu desberdinak burutzen dituztenak Parketxeetan (bisitak, ibilbideak, unitate didaktikoak eta abar). **2020ko** ekitaldian, lehentasuna ematen jarraituko zaio aurreko urteetan sortutako eskaintza / produktuak gizartean zabaltzeari eta, ildo horretan, funtsezkoa izango da erabiltzaileen feedbacka zaintzea eta aztertzea. Horrez gain, produktu eta zerbitzu berriak sortzeko ahalegina egingo da.

- Naturarekin loturiko aisialdi-jarduerak eta natur ingurunearekin harmonian egiten diren jolas-jarduerak sustatzeko helburuz, sektore honekin zuzenean nahiz zeharka erlazionatuta dauden hainbat erakunderekin elkarlanean jarduten ahaleginduko gara, horiek izaera publikoa eduki nahiz izaera pribatua eduki. Ingurumen-heziketaren eta naturarekin loturiko aisialdiaren alorrean udal, eskualde nahiz probintzia mailan lan egiten duten beste eragile batzuekin aliantzak egitea eta sendotzea da helburua, elkarrekin zerbitzu batzuk eskaintzearren, eskalako ekonomiak sortzearren eta dagokigun eremu honetan zerbitzuen

eskaintza pixkanaka homogeneousatzen joatearren. Nolanahi ere, atal honetan funtsezkoak izango dira kudeaketa-lanak orokorrean (bilerak, bisitak, hitzarmenak...).

- Fundazioaren eragin-eremua edo “merkatua” zabaltzea, Gipuzkoa eta Euskal Herriko gainerako eskualdeetan ez ezen, kanpoan ere gure lurraldeko ingurumen-heziketaren eta naturarekin loturiko aisialdiaren erreferentzia nagusietarikoa izan arte. Horretarako, aurreko puntuan jasotako jardueraz gain, Parketxe Sareari buruzko informazioa banatuko da hainbat euskarritan (ingelera eta frantsesa erabiltzen ahaleginduz), Parketxe edo interpretazio-zentroen sareak eskaintzen dituen zerbitzuen eta proposamenen berri emanez. Material horiek izaera orokorra izango dute kasu batzuetan (elementu komunak, sarearen nortasuna), eta beste batzuetan izaera berezia izango dute (Parketxe bakoitzaren ezaugarriak, aisialdi eta ingurumen-hezkuntzako proposamen desberdinen xehetasunak).

- Kontuan izanik Fundazioaren helburua Gipuzkoan ditugun Natur Parkeetako interpretazio-zentroen edo Parketxeen kudeaketa integratua burutzea dela, funtsezko lan-ildo bat zentro horien arteko sinergiak bultzatzen jarraitzea izango da. Adierazi beharra dago Parketxe Sarearen kudeaketa integralak fundazioarentzat gastu garrantzitsu bat egitea dakarrela interpretazio-zentroen kontsumo eta mantentze-lanekin loturik. Fluxu ekonomiko horiek kontrolatzea ezinbestekoa izango da fundazioaren kaudimenerako.

- Parketxeen baliabideak eta ekipamenduak osatzeko, hobetzeko eta berritzeko inbertsioak egitea, ahal den neurrian parketxeak artatzeko eta dinamizatzeko ardura duten enpresen iradokizunak aintzat hartuz.

- Lizarrustiko parketxearen ondoko abentura parkea martxan jarri, harentzat inbertsioak 2017an hasi baitziren.

- Kutxabank-ekin harremanean aro berria hasi, erakunde horren eskutik lankidetzaz egitasmoak burutuz, fundazioko kide izaten uzteko asmoa adierazi baitu 2019an.

Oharra: *Memoriak dagokion neurrian azaldu behar ditu ekitaldi ekonomikoaren barruan burutu beharreko jarduerak, fundazioaren xedea ezagutzera emateko eta hori beteko dela justifikatzeko.*

9.-EKITALDIAN BURUTU BEHARREKO MERKATARITZA-JARDUERAK

Jarduera

Onuradunak

Fundazioaren funtsezko merkataritza-jarduera, hain zuzen ere, interpretazio-zentroetan edo Parketxeetan aisialdiko eta ingurumen-heziketako zerbitzuak hainbat kolektibori (ikastetxeak, eskolak, elkarteak, taldeak) saltzea izango da, bai sarreren kontzeptuaz baliatuta eta bai bisita, ibilbide edo unitate didaktikoen kontzeptuaz baliatuta. Parketxeetan merchandaising arloko jarduerak abiaraztea ere aurreikusten da. Zenbait argitalpen (eskuorriak, mapak, liburuak...) merkaturatzea ere **2020ko** ekitaldian burutu beharreko merkataritza-jarduera bat izango da, nahiz eta ez den diru-sarrera handirik aurreikusten kontzeptu horrengatik.

10.-EGUN DAUDEN KREDITU-ERAGIKETAK

<u>Kontzeptua</u>	<u>Aktiboa (Pasiboa) Zenbatekoa 12.31n</u>
Zorrak kreditu-entitateekin	0,00 €
Hartzekodun komertzialak	0,00 €
Administrazio Publikoak	0,00 €
Onuradunak-hartzekodunak	0,00 €
Beste batzuk	0,00 €
Guztira	<u>0,00 €</u>

- Fundazioaren politika, beraz, hartzekodun guztiei beren fakturak ekitaldia amaitu aurretik ordaintzea izango da.
- Kreditu-entitateekin ez da zorrik izango.

11-FUNTZIONAMENDU-ERAGIKETAK

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euro</u>
USTIAPENERAKO DIRU-LAGUNTZAK GFA	555.000,00 €
USTIAPENERAKO DIRU-LAGUNTZAK UDALAK	100.000,00 €
EMAITZARI EGOTZITAKO KAPITALERAKO DIRU-LAGUNTZA	17.319,77 €
MERKATARITZAKO USTIAPENAREN DIRU-SARRERAK	90.000,00 €
BESTE FINANTZA-SARRERA BATZUEN ITZULKETA	00,00 €
Guztira	<u>762.319,77 €</u>

Oharra: *Ustiapenerako diru-laguntzen atala Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak 2020. urtean burutu behar dituen jarduera guztien funtzionamendu egokirako beharrezkotzat jotzen den diru-kopuruak osatuko luke.*

12-DIRU-SARRERA PUBLIKOEN, PRIBATUEN ETA FUNDAZIOAREN JARDUERA PROPIOTIK DATOZEN SARREREN ARTEKO BEREIZKETA

	<u>Euro</u>
Diru-sarrerak dohaintzengatik, legatuengatik eta Herentzia pribatuengatik.	0,00 €
Diru-sarrerak diru-laguntza publikoengatik	689.819,77 €
Funtsezko jarduera propiotik datozen diru-sarrerak	90.000,00 €
Guztira	<u>779.819,77 €</u>

Xehetasuna: Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak ondorengo jasoko duela aurreikusten da:

Gipuzkoako Foru Aldunditik:

- 555.000,00 €, ustiapenerako diru-laguntzaren kontzeptupean.
- 17.319,77 € kapitaleko Diru-laguntzaren egozpen kontzeptupean.
- 17.500,00 € kapitaleko Diru-laguntzaren kontzeptupean.

Patronatuaren barruan dauden Udal bakoitzetik:

- 100.000,00 € ustiapenerako diru-laguntzaren kontzeptupean.

13-EKITALDIKO GASTU GUZTIEN XEHETASUNA

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euro</u>
Diru-laguntzak	0,00 €
Gastu sozialak (hizlariak)	0,00 €
Pertsonaleko gastuak (Soldatak eta gizarte-segurantza)	68.064,00 €
Ustiapen-kontsumoak	55.000,00 €
Ustiapeneko beste gastu batzuk	621.936,00 €
Finantza-gastua	00,00 €
Beste gastu batzuk (Amortizazioak)	17.319,77 €
Guztira	<u>762.319,77 €</u>

Xehetasuna: Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak ondorengo gastu nagusiak izango dituela aurreikusten da:

- Pertsonaleko gastuak: Fundazioko Gerentearen soldata, dietak, garraio-gastuak eta gizarte-segurantzakoak.

- Ustiapen-kontsumoak: Lau Parketxeetako argiaren, telefonoaren eta mantentze-lanen kontsumoak.
- Ustiapeneko beste gastu batzuk: Batez ere, Fundazioak burutuko dituen fundazio-jarduerak egiteko ardura hartua duten enpresei ordaindu beharreko diru-kopuruak izango lirateke.
- Amortizazioak: Fundazioak, eratu zenetik, egindako inbertsio guztien amortizazioa.

14-LANGILEEN BATEZ BESTEKO KOPURUA EKITALDIAN

	<u>Kopurua</u>
Soldatapeko langileak	1,00
Langile boluntarioak	0,00
Guztira	1,00

15- FUNDAZIOAREN ZUZKIDURA EKITALDIAREN AMAIERAN 40.000,00 €

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	30.000,00 €
OÑATIKO UDALA	1.000,00 €
AIAKO UDALA	1.000,00 €
OIARTZUNGO UDALA	1.000,00 €
ATAUNGO UDALA	1.000,00 €
ZEGAMAKO UDALA	1.000,00 €
CAJAS DE AHORROS Y MONTES DE PIEDAD	5.000,00 €

16- 2020. EKITALDIKO EMAITZA EKONOMIKOA **0,00 €**